

## Tesio uneak bizi dira garraio sanitarioaren grebaren bigarren egunean

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 11/10/2023

Ertzaintzak bi pertsona indarkeriaz immobilizatu zituen eta identifikatu bati mozal legea aplikatuko diote.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako garraio sanitarioaren sektoreak bigarren greba eguna bete zuen atzo, asteartea, hitzarmenaren negoziazioaren blokeoa salatzeke, non langileek sektore pribatuen eta publikoen lan baldintzak berdintzea eskatzen dute veste gauzen artean. Elkarretaratze horietako batean, Bilbon, istiluak izan dira Ertzaintzak langileen eserialdi baten aurka oldartzean eta pertsona bat identifikatu dute mozal legearekin isunduz.

Egun horretan, mobilizazioak deitu ziren hiru lurraldeetan: Gasteizen, Arabako Osasuneko Lurralde Zuzendaritzaren aurrean, Santiago ospitaleko sarreran eta Zumarragan; eta manifestazioa Basurtuko ospitaletik Lakuako Gobernuaren egoitzara, gutxieneko zerbitzuak torpedeatzea helburuarekin.

Lehenengo egunean, astelehenean piketeek galarazi egin zuten Bizkaian gutxieneko zerbitzuak betetzea, eta anbulantzia bat sabotageatu zuten baita ere langileek. Gaurko egunean baita ere greba deituta dago eta piketeak antolatu dituzte, momentuz errepresiorik gabe.

---

[https://www.lahaine.org/mm\\_ss\\_est\\_esp.php/tesio-uneak-bizi-dira-garraio](https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/tesio-uneak-bizi-dira-garraio)